

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Tuterako Osasun-barrutiak "teledermatologia" ezarri du, azaleko patologien diagnostikoa arintzen duena

Haren bidez, familia-medikuak Dermatologiako espezialistei irudiak bidaltzen dizkie, eta horrek osasun-zentrora doazen pazienteei, beren etxeetan artatutakoei eta zentro soziosanitarioetan daudenei ere mesede egingo die

Ostirala, 2016.eko abenduak 23

Tuterako Osasun-barrutia "teledermatologia" proiektua ezartzen hasi da; hari esker, Lehen Mailako Arretan detektatzen diren azaleko patologien diagnostikoak hobetuko eta arinduko dira, osasun-zentroetako profesionalak egindako argazkiak Reina Sofia ospitaleko espezialistei bidaliz, azken horiek balorazioa egin dezaten.



Erriberako hiriburuko Osasun-arloko arduradunak.

Proiektua aste honetan jarri da abian Cintruenigoko osasun-zentroan eta Tuterako Ekialdekoan. Azken horretara joan da gaur Osasuneko kontseilari Fernando Dominguez, eta harekin batera izan dira, Osasunbideko kudeatzaile Oscar Moracho, Tuterako osasun-zentroko kudeatzaile Jose Ramon Mora, Tuterako Reina Sofia ospitaleko zuzendari mediko Olga Sanz, Tuterako Ekialdeko osasun-zentroko zuzendari Fernando Merino eta Julio Perez dermatologoa, besteak beste.

"Teledermatologia"-ren bidez, osasun-zentroko profesionalak irudi bat sortzen du argazki-makina batekin, eta aurrez aurre egon gabe egiten diren kontsulten bidez, Dermatologiako espezialistarengana igortzen da. Azken horrek, irudia baloratu ondoren, Lehen Mailako Arretako medikuarekin harremanetan jar daiteke aurrez aurre egon gabe egindako kontsulta horretan bertan iruzkin edo txosten bat bidaliz. Hasieran, zerbitzu hori diagnostiko eta tratamenduaren fasea arintzeko pentsatuta dago lesio dermatologikoen lehen episodioetan. Bigarren fase batean, irudien erabilera sartzea aurreikusten da patologia kronikoak edo berrerorleak kontrolatzeko eta aztertzeko. Etorkizunean, sistema bera beste patologia batzuk aztertzeko erabiltzea pentsatzen da gainera, esaterako: Kirurgia Orokorreko, Kirurgia Baskularreko eta Kirurgia Plastikoko zerbitzuen balorazio behar duten ultzerak edo zauriak.

Tuterako Osasun-barrutian, "teledermatologia"-ri esker, Lehen Mailako Arretako pazienteei, etxeetan artatutakoei eta egoitzean nahiz beste zentro soziosanitario batzuetan daudenei egingo zaie mesede. Proiektu hori urtarriletik aurrera Tuter Mendebaldeko, Corellako, Cascanteko, Buñueleko eta Valtierra osasun-zentroetara zabaltzea aurreikusita dago. Abian jartzeko zazpi kamera erosi dira (3.380 euroko kostua), osasuneko oinarritzko zonalde bakoitzerako bat.

"Teledermatología"-ren abantailak

Irudiak bidaltzeko sistema bereziki aproposa da azaleko arazoak baloratzeko, prozesuen bereizimena hobetzen uzten baitu diagnostikatzeko fasean eta tratamendu goiztiarra errazten. Laguntza-kalitatea handitzea esan nahi du, lesioa aktibo dagoenean tratatzen uzten baitu, oso garrantzitsua dena era honetako gaitzetan. Abantaila horiei pazientearen irisgarritasunena dagoen hobekuntza eranstean zaio, behin eta berriz kontsultak egitea edo beharrezkoak ez diren joan-etorriak ekiditen dituztenak.

Proiektu horrek, halaber, Lehen Mailako Arretako eta Arreta Espezializatuko medikuen arteko komunikazioa sustatzen du, eta familia-medikuen prestakuntzaren etengabeko hobekuntza nahiz erabakitze gaitasuna sustatzen ditu zirkuitu arinak ezarriz eta Arreta Espezializatutik laguntzeko irisgarriak direnak. Epe luzera, itxarote-zerrendak murrizten lagunduko du.

Osasunbideko Dermatologiako arreta integratuko lantalde tekniko batek emaitzen jarraipen bat egiten du eta lan egiten du ondorengo zehazteko: dermatologiako zer patologia-mota diren egokienak "teledermatologia"-ren bidez artatzeko, bai eta Lehen Mailako Arretaren eta Espezializatuaren artean pazienteak bideratzeko irizpideak egokitzeko ere.

Aurrez aurrekoak ez diren kontsulten hazkundera

"Teledermatologia" proiektua, Paziente Kroniko eta Patologia Anitzeko Pazientearen Estrategian sartua, Lehen Mailako Arretako eta Arreta Espezializatuko profesionalen artean edo osasun-zentroetako sanitarioen artean komunikazioa bultzatzeko planaren barnean dago aurrez aurre egon gabe egiten diren kontsulten bitartez. Osasun Departamentuak tresna hori ahalik eta espezialitate gehienetara zabaltzeko lanean ari da, medikuen nahiz erizaintzako profesionalen arteko komunikazio-mailan.

Tuterako Osasun-barrutian aurrez aurrekoak ez diren kontsultak jarri dira espezialitate medikoetan, eta bolumen handiena Kardiologiak hartzen du. Ezarpenaren bigarren fasean kirurgiako espezialitateak sartuko dira.